

Garaziko inauterien alfabetoa

Donibane Garaziko Lizeoko ikasleek Libertimendua eskainiko dute asteburuan, hirugarren aldikotz

XAN AIRE

Baiona

«Oinarririk gabe, ez da kulturalrik», dio Antton Lukuk. «Oinarririk du transmisioa bermatzen, eta sorkuntza bultzatzen». Libertimendua hirugarren urtean jarraian eskainiko dute Donibane Garaziko Lizeoko ikasleek, Luku-ren lumak gidaturik. «Baxenabarreko eta Garazi inguruko inauterien alfabetoa da Libertimendua» erran du idazleak. «Zuberoan denek dakite zamaltzaina zer den, nor den, zer egiten duen. Baxenabarren, haurrek Libertimendua argi behar dute».

Xede horrekin, hirugarren Libertimenduari lotu dira, beraz, Luku eta bere ikasleak. Igandean iraganen da. Hori baino lehen, bihar, Santibateren karietara menditik jaitsiko dira zirtzilak, Donibane Garaziko karriketan



Bolantek, edo dantzariak, zirtzilen jokoari erantzuten diete Libertimenduan. **BERRIA**

ibiltzeko. Ostaturik ostatu eske iragaiten den gaua, maskaturik. «Zirtzilen inauteria da, negukoa» dio Lukuk. «Libertimendua, aldiz, dantzariena da, udaberriarena, egunaz dena».

Igandekoa 9:30ean abiatuko da, kabalkadarekin, Eihalarreko bidetik, Donibane Garaziko parte zaharrera. Trinketeko plazan 11:30ean Libertimendua bera ikusteko. Zirtzilak eta Bolantek, edo

dantzariak, aurrez aurre. Lehia horretan, jokoari dantza erantzuna. Tartean, Erremundegi, Hiriart eta Mateo epaileak. Erdian, aktualitateko gai minberak. Azkenean, Garaziko inauteriak.

'Antzerti' aldizkaria sarean berrargitaratu du 'Armiarma' atariak

LITERATURA ■ *Antzerti* aldizkariaren edukiak sareratu ditu *Armiarma* atariak, *antzerti.armiarma.com* helbidean, testu gisa nahiz faxsimil gisa. Biarozan zituen *Antzerti*-k: 1932 eta 1936 artekoa, Antonio Maria Labaienek gidatua; eta 1982 eta 1985 artekoa, Antzerti eskolaren eskutik, Eusko Jaurlaritzak babestua. Guztira, 47 egileren 76 antzerki dira irakurgai. Oraindik orain Idioia Gereñuren *Antzerti*, 75 urte ondoren liburua kaleratu berri du Etor-Ostoak, aldizkariako materiala bilduz eta aztertuz.

Los Vivancos taldea Arriagan ariko da otsailaren 6an eta 7an

DANTZA ■ Elias, Judah, Josua, Israel, Aaron eta Josue Vivancos anaiek osatzen dute Los Vivancos taldea. Flamenkoa beste dantza mota batzuekin nahasten dute. Arriaga antzokian otsailaren 6an eta 7an ariko dira, eta bertan, alegria, buleria, tangoa, solea eta runba uztartzen dituen ikuskizuna emango dute.

Argiak eta itzalak

KRITIKA

MUSIKA
KEN ZAZPI

JOSEBA MARTIN

an nabarmena garatu dute Gernikako musikariek *Argiak* disko berria aurkeztearren: soinu indartsua eta garde-na, argi-joko berriak, eszenografia originala eta giro egokia, besteak beste. Gainera, apustu

ederra egin du boskoteak kantu berri gehienak Arriagara ekarri —hiru baino ez ziren kaxoian geratu—; atril txiki batean zeuden kantu horien hitzak, badaezpada ere. Teorian bukatuta zeuden sarrerek, baina hutsune batzuk ikusi genituen han-hemenka —gonbidapenen aulkia, beharbada?—. Dena den, aretoak jendez gainezka zegoela islatzen zuen, eta modu bitxi batez, gainera: gu-raso gazteak umekin, nerabe

ugari eta lagun talde gazteak, hau da, gure plazetan topatzen dugun Ken Zazpiren entzuleria mota; oraingoan, berriz, eserita.

Diskoan bezala, *Ez nau izutzen* kantuaren rock aire sendoa hasi zen ekitaldia. Eñaut Elorrieta kantariak lanerako prest zegoela adierazten zuen, keinuz eta jarre-raz. Oso gutxitan egin zuen kantuen aurkezpena, bakar-bakarrik gaia oso adierazgarria zenean: inkomunikazioa (*Amorrúa*), Gernikako bonbardaketa (Sarrionandiaren *Gernikan*, argi gorri hutsez, «orduko zauriak ez dira itxi oraindik»), euskal preso-

sakabanaketa (*Malen*), lehenengo agurrean (*Gaueko argiak* balada ederrean, «zuek gure argiak zaretelako») eta azken kantuan baino lehen (*Zapalduen olerkia*, zein ote?). Bidean kantu berriak (*Nire lurrari*, *Olatuz olatu* U2-ren estilo-ko balada, *Itxaropena* —Eñaut belauniko—, *Bihar* kantu biribila, *Irailaren 14a* —Pink Floyd-enen gisako gitarrekin—) eta zaharrak (*Gau urdinak*, *Haizea* arrakastatsua, *Gutuna* sendoa, *Ilargia* famatua...) nahasten ziren, bigarren horietan entzule gazteen ahozko laguntzaz.

Nire uste apalean, urduri samar

ibili zen taldea, geldiegia agian (kantaria mugitu zen bakarrik) eta ekitaldiaren dinamika hartzea zerbait kostatu zitzaion, kantuen arteko pausarteak oso markatuta baitzeuden. Bestaldetik, kantuak diskoan bezala eskaintzen saiatzen dira Ken Zazpikoak eta bikaintasun horrek taldearen freskotasuna mugatzen du. Beste egunetako txinparta ez zen oraingoan sortu. Dena den, kontzertua primeran egon zen; doikuntza txikia baino ez zaio falta.

Lekua: Bilboko Arriaga antzokia.
Eguna: Urtarrilaren 29a.

Izenbururik ez

KRITIKA

MUSIKA
NDR HANNOVER PHILHARMONIE
ORKESTRA

ARKAITZ MENDOZA

Gaurko kritikak ez du idazpururik merezi. Hobe hutsik uztea. Nola espresa daitezke emozioaren barrunbe sutsuaren printza gartsuak hitzen bidez? Nik ez dut gaurkoan aurkitu, aspaldian sentitu ez dudana hoztikara piztu baitzidaten alemaniar horiek. Petrenko gaztearen

heldutasuna iraingarria izan zen, gehiegizkoa; ziur, garbi, distiratsu, guztiz errenditu zen erromantizismo musikaren edertasunean. Izar baten hutsean, beste bat genuen, aranditsua: Gringolts musikaria. Txaiikovskiren kontzertuan ez zuen biolin jotzaile adimentsu baten interpretazioa eskaini, kristoren musikari batek egingo lukeen magia ferekatu baizik.

Lehen hamar segundoetan loratu zuen entzutegiaren isiltasuna lurrundu eta aztitasun bihurtzea. Izarrek bakarrik dute horretarako gakoa. Soka hirukoitzak, arpegio-

ak, trinoak, notarte jauzi arrisku-suak... oro soiltasun eta dotorezia finez. Erraztasunaren giltzaren jabe, bihotzeko maitasunaren lurrin tanta minberakorrek zirrargarri dastatu zituen, hasierako *Allegro moderato* atala pairamen berak isilarazi behar izan zituen, denok sobera ase baikuend. Orkestrako hariak musika ez-titsu horretan barreiata, azpi geruza bikaina eratu zuen biolinak berak *Canzonetta* melodia urtu zezan. Epel, argi, bizkor eta liluragarri amaitu zuen azken *Allegro vivacissimo*, egitarautik at egundoko erregalia eskaini arte: Heinrich Ernsten *Die letzte rose*.

Lehen biolin jotzaileek taktikaz aldatu zuten atsedenaldi ostean; Txaiikovskiren obran lehenengo atrilek lantzen zuten soinua, atzekoek estali lagundu soilik, musika hots inguratzaile bat sortuz. Berliozen sinfonia handian berriz, denek ekarpen bera hedatu zuten, soinu distiratsu eta sarkor baten mesedetan. Xehetasun guztien jabe ziren orkestra kideak, une bakoitzean azaldu beharrekoa neurrian agertuz. Sinfoniaren lehen atalean sinkopa erritmoa indartsu zuzendutako Petrenkok, esaldika-penaren barne egiturari funts berezia iradokiz. Harparen arpegio gardenak *Dantza* pasartearen; segidako *Landa*-ko pasartearen Beethovenen *Pastoral* sinfoniaren pare-

kotasunak nabari egin ziren, adar ingelesa eta oboearen arteko elkarriketa dela medio. Orkestra honek dituen egundoko haize instrumentu bakarlariek asko gozatu zuten beren soloetan, dinamika goibehe handiak interpretatuz. Elgarren *Enigma bariazioak* bis goxoa izan zen. Ahaztezina, izugarria eta sinestezina hitzek ez dute kontzertu horren sentipena inoiz ere fidel-tasun osoz adieraziko.

Zuzendaria: Vasily Petrenko. **Biolinjotzailea:** Ilya Gringolts. **Egitaraia:** John Adamsen 'The Chairman Dances', P.I. Txaiikovskiren 'Biolinlerako kontzertua' eta H. Berliozen 'Sinfonia Fantastikoa'.
Lekua: Donostiako Kursaal Auditoriuma.
Eguna: Urtarrilaren 29a.